

HITZA



Hondarribia atzo lehena izan zen gizonen sailkapen estropadan. Bandera irabazteko hautagai sendo dira berdeak. ASIER PEREZ-KARKAMO

Oiartzun Keren emakumeen taldeak mailari eustea du helburu nagusi aurten ere

Jokalari garrantzitsuek taldea utzi duten arren, bederatzi fitxaketa egin ditu; igandean jokatuko du Lehen Mailako lehen jardunaldiko partida, etxean // 4-5

Aitor Arrieta dantzari errenteriarra, English National Balleteko izar // 6-7

Kontxako bi banderak irabazteko prest daude Oarso Bidasoko lau ontzi

Emakumeetan lasaitasun osoz lortu dute sailkapena Hibaikak eta San Juanek • Gizonetan, Hondarribiak eta San Juanek ez dute aparteko arazorik izan Kontxan egoteko • San Pedroren hutsunea, eguneko albiste txarra // 13

Errenteria-Orereta Mikelazuloko kideek Lampedusan jasotakoa zabalduko dute // 2-3



txantxangorri
TABERNA . JATETXEA

• Razioak • Pintxoak





San Pedro, 27 . Hondarribia
Tel.: 943 642 102



Lampedusako CIE, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroan, migranteak bazkaltzeko zain ilaran. Pasa den asteburuan 250 migrante heldu ziren uhartera. JURDANA OTXOA

Migranteen errealitatea bertatik bertara ezagutu dute Harresirik Gabeko Lurraldeak inizatibako hamalau kidek Lampedusan. Handik itzulita, ikusezina den errealitatea azalarazteko prest dira.

Harresiak printzatzaren hasi dira

—**IKERNE ZARATE**

Errenteria-Orereta

Errealitatea bertatik bertara ezagutu eta elkartasun sareak josten aritu dira astebetean Harresirik Gabeko Lurraldeak inizatibako hamalau kide Lampedusa uharrean. Errenteria-Oreretako Mikelazulo elkartearen berotasunetik eta hainbat lagunen kezkatik sortutako inizatiba da. Herenegun itzuli ziren Italiako Sizilia eskualdeko Pelagiar Irlen artxipelagoiko irlarik handienetik. Motxilak beteta heldu dira, esperientziak, irudiz, eta ezagutzaz, eta orain hori guztia Errenteria-Oreretan zabaltzeko asmoa dute.

Beñat Irasuegi Lampedusarai-

no joan den taldeko kideetako bat da. Oraindik Lampedusan zirela hitz egin zuen OARSO BIDASOKO HITZAREKIN [astelehenean], eta esaldi bakarrean definitu zuen migratzaileen gaineko albiste lazgarriek azken urteetan ezagun egin duten uharrea, «interes ekonomiko eta militarrek migranteekin topo egiten duten irla da Lampedusa».

Ez ziren itsu-itsuan joan, aurretik gaia landua zuten, baita harremana egina ere uharrean lanean diharduen Askavusa elkarte kultural eta politikoarekin. Azken horietako kideek gidatu dituzte Harresirik Gabeko Lurraldeak (HGL) inizatibakoak. Uharrean bertan, migratzaileen gaia modu kritikoa lantzen duen elkarte bakarra Askavusa dela nabarmendu du Irasuegi.

«Deseroso sentitu ginen lehen

egunetan, kosta egin zitzaigulako migrazioarekin zegoena zer zen topatzea. Askavusa elkartearekin eta beste eragile batzuekin hitz eginda, ordea, informazio ugari lortu dugu».

Kontraesanez betetako irla

Ederra da Lampedusa, turistet betetako irla. 6.000 biztanle dituen uharreak, eta udan populazioa laukoztu egiten dela esan du Irasuegi, «azken urteetan egin da oso ezaguna, Mediterraneo gurutzatzeko hildako gehien dituen pasabidea delako. Aurten 3.000 lagunetik gora hil dira Tunisia eta Libiatik abiatu eta Lampedusara bidean».

Kontraesanez betetako irla dela argi du HGLe, «turistet betetako irlan, migrazioaren gaineko dispositibo izugarria dutelako, baina ikusezina. Badirudi



«**Interes ekonomiko eta militarrek migranteekin topo egiten dute**»

«**Harrera sistema krudela antolatu du Europak migranteentzat**»

«**Aurten, 3.000 lagunetik gora hil dira Lampedusara bidean**»

Beñat Irasuegi
HGL inizatibako kidea

akordio bat dutela. Izan ere, turistet badakite uharrean zer gertatzen den, baina ez dute nahi arazoa esplizituegi egin, oportetara datoz ongi pasatzera». Hori izango da zehazki Errenteria-Oreretatik Lampedusaraino joan den taldearen lana «ikusezina edo ezkutukoa dena, ikusaraztea».

Atentzioa eman die HGLko kideei ere uharrearen militarizazioak, «NATOk, Frontex-ek (mugen kontrolerako agentzia) eta Italiako armadak gerrarako atunduriko leku estrategikoa bihurtu dutela. Lampedusan izan zen emergentzia egoeratik, migratzaile asko hil dira hara bidean, Libiako kostaldera eramaten zuten muga Frontexek». Gerra interesak tarteko, Europari Libiako muga kontrolatzea komeni zaiola zalantzarik ez du

30.000

HILDAKO MIGRATZAILEAK

Lampedusa uhartera azken urte-etan oso ezaguna egin da. Mediterraneo gurutzatzeko pasabideen artean gehien di-tuena delako. 2000. urtetik Tunisia eta Libiatik abiatu diren migratzaileen artean 30.000 hil dira Mediterraneoaren uretan Lampedusara eta Europara bi-dean.

Irasuegik. Erabaki horren ondorioz, lehenago Lampedusaraino heltzen ziren migratzaileen ontziak irten eta 20 milietara dute muga orain, «bertan erreskatatzen dituzte, edo itsasoan gelditzen dira, Lampedusatik urrun».

Aurretik latzak ziren bidaietako baldintzak gehiago kaskartu ditu muga tokiz aldatzeko erabakiak, «ruta horiek antolatzen dituzten pertsonen trafikatzailerik badakite migratzaileak 20 milietara erreskatatuko dituztela kasurik onenetan, eta baltsa oso prekarioetan eta gasolina gutxirekin bidaltzen dituzte. Horrek bidaiaren arriskua handitu egiten du, eta migratzaileek beraiek ere, badakite ez direla Lampedusara iritsiko».

Estrategia horren errudun trafikatzailerik dira, baina baita Europa ere, Irasuegiren ustez, «Europak erabaki baitzuen trafikorako erabiltzen ziren arrantza ontziak konfiskatu edo zuzenean deusezte. Jende ziugari piloa hiltzen ari da».

Uhartea, militarizatua

CIE, Atzeritarren Barneratzeko Zentro bat bada Lampedusan. Uhartearen kanpoaldean dago, turismotik urrun, irlaren ertzean kokatutako militarren base ugariak bezala. «Militarizatua dago irla —esan du Irasuegik— gerra elektronikorako eta abiaziorako postuak, radarrak... Libian egiten ari diren bonbardaketak Italiatik kontrolatzen dituzte. Migratzaileen krisiaren aitzakiarekin Lampedusatik hegoalderako itsasertza erabat militarizatua dago».

HGL taldeko kideek CIE zentrorra sartzeko asmoa zuten egoera hurbiletik ezagutzeko. Aukerarik ez dute izan horretarako, baina bai kanpotik hura ikusteko. «Prekarioa da, toki gutxi dute bertan eta baldintza txarretan daude». Lampedusara heldu zirenean migrante gutxi zegoen



Lampedusako CIE zentroan, modulo bat erreta ikusten da. J. OTXOA



Askavusako kideak migranteen erakusketa azaltzen. BEÑAT IRASUEGI



Oso turistikoa da uhartera. Udan laukoiztu egiten da populazioa. B. I.



Askavusako kideekin despedida argazkia. HARRESIRIK GABEKO LURRALDEAK

Lampedusa ikur bilakatu du Harresirik Gabeko Lurraldeak-ek

Lampedusara bidean 700 migrante hil ziren iazko apirilean. Urte hartan bertan, azaroan, Lampedusa mosaikoa egin zuen Mikelazulo Kultur Elkar-teak Agirre Lehendakariaren plazan, Herrien Astearen barruan. «Itsas eder bat. Uhinak. Txalupak dantzan. Txalupariak urduri. Gorputzak eta ametsak. Familia-harremanak, lagun-harremanak, bizitza kolokan»; hori guztia biltzen du mosaikoak. Laguntasunaren eta aniztasunaren mosaikoa

bertan. Halere, uhartera zirela, 250 migratzaile heldu ziren, «Askavusako portu inguruan duen lokalean ginen bilduta, egunean zehar jasotako inpresioak partekatzen eta hurrengo eguneko egitekoak antolatzen, eta orduan ikusi genuen itsasontzia heltzen».

Migratzaileen prozesaketa

Hamalau lagunetik lauk lortu zuten portura hurbildu eta instalazio militarrean sartzea, «laurak hunkituta zeuden, nahikoa une kontraesankorra izan zen», azaldu du Irasuegik. Gauez eraman zituzten, 00:00ak aldera, «ordu-tegi hori aukeratzea ere ez da kasuala, dagoen arazoa ezkatutze-ko beste saiakera baizik».

Lehorreratu bezain pronto migratzaileekin prozesaketa egin zutela esan du HGL inizatibako kideak, klasifikazio bat. Horren arabera bereizi egiten dituzte asilo eskaera egingo duten migratzaile ekonomikoak eta beste egoera berezietan heltzen direnak, «horren arabera eskubide batzuk dituzte, edo kanporatu egiten dituzte». Une gogorra izan zen hamalauentzat: «Migratzaileentzat une oso garrantzitsua da, Europara heldu dira, nahi zutena lortu dute momentu horretantxe, une ona da. Aurkitzen duten giroa eta sistema, baina, oso hotza da, portuan maskarilak eta guanteak jantzita jasotzen dituzte migratzaileak, kutsatuta bailiran. Itzaropentsu heltzen dira, baina Lampedusa eta Siziliatik lur jota ateratzen dira, berehala konturatzen dire-lako European nahikoa sistema perbertsoan sartu direla».

Egoera hori guztia politika migratorioen ondorio dela inolako zalantzarik ez du errenteriarak,

da; harresien, txantzarren eta kontzertinen aurkako ikur, elkartasunaren aldeko aldarri.

Sumunduraren Eguna bertan egin zuten joan den apirilean, Lampedusako gertaera lazarriaren urteurrenean. Topagunearen asmoa aniztasunaren, herrien arteko ezagutzaren eta berdintasunaren gunea izatea da. Baita elkartasunarena ere.

Mediterraneoan gertatzen ari denarekin kezkatuta, erreallitatea ezagutzeko asmoz, eta Errenterian kokatutako Lampedusaren mosaikotik harago joateko gogoz, Mikelazulon bertan sortu zuten joan den apirilean Harresirik Gabeko Lurraldeak inizatiba, eta Lampedusa bilakatu du ikur.

«horren gaineko azterketa ere egin dugu Lampedusan», eta gogor salatu du hori Irasuegik, «harrera sistema krudela antolatu du Europak. Migranteak sistema horretan sartzen dira, baina gehienek ateratzea erabakitzen dute, gogorra delako. Horrek arriskua dauka, asko eta asko mafien eskuetan erortzen dire-lako».

Informazioa zabaltzera

Harresirik Gabeko Lurraldeak proiektua joan den apirilaren 18an hasi zuten, Lampedusara bidean 700 migratzaile Mediterraneoan ito ziren gertaera lazarriaren urteurrenean. Iniziatiba ez da, ordea, Lampedusara egindako bidaiarekin amaitu, geltokia baino ez du izan uhartera.

Hemendik aurrera, ikusi, entzun eta ikasi dutena Errenteria-Oreteran barrera zabaltzea dute helburu HGL inizatiban ari direnek. Hurrengo astetik aurrera, harresirikgabe.eus webgunean informazioa eta irudiak sartzen hasiko dira.

Dokumentala ere egin nahi dute jasotako bideo eta irudiekin osatuta, Mikelazulon hitzaldi batekin batera publiko egiteko. Eta anbizio handiagoko asmoa ere badu inizatibak: jardunaldiak antolatu nahi ditu Europak mugak sortu dituen herrietan lanean ari diren elkarteekin. «Askavusa elkarteko kideekin batera, Melilla, Grezia, eta Calaisen lanean ari diren elkarteko kideak ekarri nahi ditugu». Leku guztietan, arazoa politika bereberek sortua dela erakustea dute helburu, baita tokian tokiko elkartasun esperientzien berri izan eta elkartasun sareak jostea ere.

izarate@hitza.eus

Igandean hasiko du Oiartzun Kirol Elkarteak bigarren denboraldia —aro berrian— Lehen Mailan. Iaz bezala, mailari eustea izango dute helburu, eta taldea ongi sendotu dute.

Bigarrenenean ere, eustea

—ERIK GARTZIA Oiartzun

Iristear da eguna. Ia hiru hilabeteko lehia geldialdiaren ondoren, etzi eguerdian hasiko du liga Oiartzun Kirol Elkarteak talde nagusiak, emakumeena. Espanyol jasoko dute, 12:00etan, Karla Lekuonan. Bertan, kirol elkartearen bazkide egiteko aukera egongo da.

Lehen Mailan, bigarren aroko bigarren denboraldia izango da asteburu honetan hasiko dena. Iaz, hiru jardunaldiren faltan lortu zuten mailari eustea. Musika taldeentzako bigarren diskoa zailena izan ohi da, egonkortu behar dutelako, eta filmeei bigarren zatiekin gertatu ohi den ez bezala, Oiartzunek paper ona jokatu nahi du.

Horretarako, bederatzi jokalaririk fitxatu dituzte, eta talde tekniko guztia aldatu dute. Gari Argotek (Oiartzun, 1977) hartu du Jon Alkortaren entrenatzaile postua, eta Alkorta kudeaketara pasatu da.

Argotek zazpi urtez entrenatu zuen mutilen lehen taldea, eta emakumeenera abenduan iritsi zen, laguntzaile gisa. Gustura ari da taldea entrenatzen, eta txantxetan aitortu du oraindik prentsari adierazpenak-eta egitea kosta egiten zaiola, ohitura falta duela. Ez zaio asko nabaritu, baina.

«Bigarren urtea zailagoa izan daitekeela uste dut. Lehenengo urtean badago ilusio handi bat, eta inertzia positibo batekin zator», adierazi du entrenatzaile oiartzuarrak. Konplikatu izanagatik, taldea «ilusioz beteta eta gogotsu» ikusten du Argotek.

Iazko bloketik bost jokalaririk faltako dira, eta horietako bi egungo txapeldunak —Athleticek— fitxatu ditu: Esti Aizpurua eta Esti Bajo. «Taldearentzako negatiboa da bi baja horiek edukitzea, bi erreferentzia zirelako», adierazi du. Beste alde batetik, baina, irakurketa positiboa egin du: «Erakusten du lana ongi egin dela, eta jendeak aukera polit horiek eduki ditzakeela. Azken batean, nahiz eta Oiartzun Lehe-



Bost aste iraun ditu Oiartzun Kirol Elkartearen aurrendenboraldiak. Irudian, asteleheneko entrenamendua. ERIK GARTZIA

nengo Mailan egon, egestura aldetik, ezin da Athletic edo Real bezalako taldeekin alderatu. Beste profesionaltasun bat dute, beste baliabide batzuk, eta hori pizgarri bat da».

Hala ere, argi utzi nahi izan du Oiartzunek bere lana «ahalik eta modu onenean» egin behar duela.

Ideia berriak ezarri nahian

Bederatzi hilabete daramatza, kargu batean ala bestean, Karla Lekuonako aulkian. Iazko jokoarekin alderatuta, aurtengoa ezberdinagoa izango dela ziurtatu du Argotek. «Iaz laguntzaile moduan aritu nintzen, eta aurten saiatuko naiz nire ideietan pixka bat gehiago sakontzen».

Hainbeste fitxaketa egitearen arrazoia iaz jokalaririk kopuru aldetik «nahiko justu» ibili zirela da. «Lehen Maila oso exijentea da, eta gure helburuetako bat lerro guztietan fitxaketak egitea zen», gaineratu du. Horrela, postu guztiak indartzeaz gain, jokalariren artean lehiakortasuna ere

sustatu nahi dute. Merkatua oso murrizta du Oiartzun Kirol Elkarteak, are gehiago talde ez-profesionala izanda. «Gure inguruan Real eta Athletic ditugu; gu gara azkenekoak. Gertukoak dira, Euskal Herrikoak. Irundik bi, Azpeitia, Orrio, Bilbotik pare bat... Ongi miatu behar duzu merkatu guztia, ikusi zein profil



«**Igandero aukera bat dago hiru puntuak lortzeko; zenbat eta azkarrago, hobeto**»

«**Hamasei taldeetatik hamar profesionalak dira; ezin gara haiekin alderatu**»

Gari Argote
Oiartzungo entrenatzailea

behar dituzun, eta ahal bada gure ideiekin bat egitea». Onartu du zaila dela fitxaketekin asmatzea, baina aurrendenboraldiko partidetan ikusitakoaren arabera, Argotek uste du asmatu dute.

Maila mailakatua

Iazko denboraldiari errebaso emanda, hiru multzotan sailkatu ditu Lehen Mailako —orain Iberdrola Ligako— taldeak: tituluaren bila doazenak —Athletic, Atletico, Bartzelona eta Real—; kopan sartzeko txartela lortu nahi dutenak eta, azkenik, mailari eusteko lehiatzen direnak. Azken talde horretan sartu du Oiartzun. «Goikoen, erdikoen eta behekoen artean diferentzia nahiko handia da. Erdi profesionalak dira, goizez entrenatzen dira, beste baliabide batzuk dituzte. Hemen juxtu-juxtu bi daiak ordaintzeko daukagu, eta klubak esfortzu handi bat egiten du horretarako», baietsi du.

Iaz bolada txarrak harrapatu zituen Oiartzunek. Maila berean

taldeen artean dagoen aldeari egotzi dio: «Agian, jarraian, talde onenen aurka jokatu behar duzu, eta momentu zailak dira, ezintasun pixka bat sorrarazten du horrek». Hala ere, akatsetatik ikasten saiatzen direla baieztatu du, eta aurkari gogorrenengandik «ahalik eta hurbilen» egoten.

Dena den, arerio gogorren kontra jokatzetik ere ondorio positiboak atera ditu entrenatzaileak. Izan ere, Oiartzun bezalako klub txiki batentzat maila handiko arerioen kontra jokatzeko «sari bat» dela iritzi du. Eta Karla Lekuonak jokatzeko ere «gozamen» bezala definitu du: «Jende pila bat etortzen da ikustera, eta edonork jokatu nahi du arerio horien kontra. Kanpoan ere, beraien instalazioak eta abar ikustea, oso polita da. Pizgarri politak dira».

Partidaz partida

Topikoa dirudiela onartu du, baina denboraldiko aurtengo helburuei buruz hitz egiterakoan, «partidaz partida» joan behar

dela esan du: «Igandero aukera bat dago hiru puntuak lortzeko, eta zenbat eta lehenago lortu, hobeto». Horrela, oraingoz, helburu «bakarra» etziko partida izango da. Talde indartsua da Espanyol, eta aitortu du gauzak «oso ongi» egin beharko dituztela hiru puntuak lortzeko. Ugalde txoko zelaian gertatzen dena gertatzen dela ere, hurrengo helburua Albaceten hiru puntuak lortzea izango da.

Penintsula barruko gainontzeko bidaiak bezalaxe, autobusetan joango dira Albaceteraino. Ordu askoko bidaiak da. «Gogortasun puntu hori badu. Ordu

asko pasatzen dituzte elkarrekin», jarraitu du, «eta nola edo hala pasatu behar dira. Giro oso ona dago, eta harreman estua sortzen da taldekoen artean».

Desplazamenduak ez dituzte bakarrik egiten, normalean. «Badago guraso talde bat hutsik egiten ez duena. Pentsatzen duzu 'a zer morala duten!', baina ederki pasatzen dute tokiak bisitatuz [kar-kar]». Edonon Oiartzun animatzen ari den norbait badela ikusteak indarra ematen die taldekideei.

Epe luzeagora begira, Argotek adierazi du Oiartzun Lehen Mailan urte askotan mantentzea

«zaila» izango dela. «Hala ere, ahalik eta denbora gehien gertatzen saiatuko gara», ziurtatu du. «Hamasei taldeetatik, hamar edo hamaika esturura profesionaleko taldeak dira, eta horrekin lehiatzea ezin da alderatu», gaineratu du entrenatzaileak, baina, trukean, talde urdinak «ilusioa eta gogoarekin» lehiatu behar du.

«Jokalariei esaten diet», jakinarazi du, «ez dutela hau baino maila altuagoan jokatu. Disfrutatu behar da segundo bakoitz. Zuek esan ahal izango duzue 'Nik lehen mailan jokatu dut. Ez galdu aukera hori'. Bizitza guz-

tian kontatu ahal izango duzu». Entrenatzaileari ere ilusio handia egiten dio Lehen Mailan entrenatzeak, bere herriko taldean.

Igandea iristeko gogoz dagoela berretsi du, eta uztailearen 26tik aurrendenboraldian landutakoa praktikan jarri nahi dute. Emaizta onak lortu dituzte, eta jende berria ongi moldatu da. Talde guztiak ongi indartu direla esan du Argotek, eta ikusi behar dela nola jokatzen duten.

Baloia jokoan jartzen duten egun seinatua etzi izango da. *Kick-off*.

egartzia@hitza.eus

Aldaketak

ALTAK

Ainara Manterola (Real); Ane Otxoa (Oviedo Moderno); Nekane Quiñones (Mariño); Irantzu Ibarrola (Gasteizko Aurrera); Silvia Ruiz (EDF Logroño); Sara Olaizola (Mariño); Eztizen Merino (Athletic); Eguzkiñe Peña (Real) eta Joana Arranz (Santa Teresa).

BAJAK

Esti Aizpurua eta Esti Bajo (Athletic); Aritz Etxabe, Ainitze Rodríguez eta Erika Garcia.

«Jende berria etortzeak norberari helburu berriak jartzen dizkio»

ANNE MUGARZA OIARTZUNEN KAPITAINA

Bederatzigarren denboraldia (gehi aurretik beste bi) jarraian izango ditu klubean Mugarzak (Lezo, 1985). Denboraldi berriari begirako sentsazioei buruz aritu da erdilaria.

E. GARTZIA Oiartzun

Zein egoeran hasiko duzue liga?

Ilusio guztiarekin. Talde oso berria da, iazkoarekin alderatuz, eta jende pila bat etorri da kanpotik. Ilusioa, betikoa: guztia. Ea iazko helburu berbera lortzen dugun. Azken finean, gure helburua iazko berbera da: Lehen Mailan jarraitzea, bertan jarraitzeko txartel hori lortzea. Hortik aurrera, zer edo zer hobetzea lortzen badugu, ongietorria izango da, baina oso argi dugu helburu nagusia maila mantentzea izango dela.

Entrenatzaile berria duzue. Zer moduz?

Oso ongi. Talde tekniko osoa berria da: bigarren entrenatzailea, atezainena eta prestatzaile fisikoa. Entrenamenduen metodologia aldatu da, eta nabaritzen dugu hobekuntza. Jonek [Alkorta] urte dezente zeraman gurekin, eta berak esan bezala, puntu batera iritsi zen ez zuela ezer berririk proposatzeko. Alde horretatik, entrenatzerak jende berria etortzeak, norberari helburu berriak jartzen dizkio: bakoitzak duen onena eman behar du, eta berriro postua irabazi behar du. Oso ongi etorri zaigu, bakoitzak bere buruari helburu berriak jartzen dizkiolako eta lehiakortasu-



ERIK GARTZIA

na sortzen duelako. Sanoa, baina lehiakortasuna azkenean.

Jokalariei ia erdia iritsi berriak dira. Zer moduz integratu dira aldagelan?

Oso ongi. Jende oso jatorra da, umila, eta askok badute esperientzia Lehen Mailan, eta horrek ere taldearen maila mantendu edo igo egiten du. Egunerokotasunean, entrenamendue-

tan zein maila pertsonalean, oso ongi moldatu dira. Egia da Oiartzunek baduela ospea alde humanoari dagokionez. Diru askorik ez du klubak, baina beste gauza batzuk ditugu. Jokalari berriek eurek esaten dute *super* gustura daudela hasieratik, eta oso ongi hartu dituela taldeak. Eta horrek guri ere poztasuna ematen digu. Gure helburua ere

hori da: kanpotik datozenak eskuzabal hartzea, eta ahal den ondoen sentiaraztea.

Entrenamenduak ezberdinak direla esan duzu. Zelaian ere aldatetako egongo dira taktikoki? Zelaian gogorrak izateko eskatzen digute, agresiboagoak. Egia da gure berezitasunetako bat izan dela hori. Taktikoki antzeko probatzen ari gara: 4-3-3 eus-

karri batekin eta bi barnekorekin, edo 4-2-3-1 bi euskarri eta puntaerdi batekin. Baina aldatzea izango da, jokatzeko moduan gauden jokalarien arabera edo entrenatzaileak nahi duen arabera. Jokalari guztiak daude oso maila onean, eta partidaren beharren arabera, aukera pila bat daude. Taktikoki, pertsonalki, nik ez dut aldaketa handirik ikusi, ez marrazkian ezta jokatzeko garaian.

Helburuak lortzeko bidean, garrantzitsuak dira zaleak.

Aurreko urteetan ere zelai honek puntu asko eman dizkigu. Alde batetik, arerioak ez daudelako



«Oiartzun Kirol Elkartean ospe ona du alde humanoari dagokionez»

ohituta belar naturalean jokatzera —oso irregularra da, neguan batez ere—. Bestetik, jende asko hurbiltzen delako zelaira. Lezama eta Zubietak kenduta, beste zelaietan ez da hainbeste ikusle egoten, benetan. Tristura pixka bat ematen du zelai ia hutsak ikusteak. Bartzelonaren zelaian jende gutxi zegoen guk han jokatu genuenean. Agian puntako talde batekin ikusle gehiago joaten dira, baina hala ere... Gurea da ligan gehien betetzen den hirugarren zelaia, eta horrek kristoren *subidoia* ematen du. Oiartzun inguruko jende pila bat ere hurbiltzen da, eta horrek kristoren goxotasuna eta sekulako indarra ematen dizu. Hori aprobeztatu behar dugu, iaz bost puntu bakarrik atera baikenituen etxetik kanpo. Ia puntu guztiak hemen lortu genituen, eta hori oso esanguratsua da.



«Bakarlari gisa pieza asko dantzatu nahiko nituzke»

AITOR ARRIETA DANTZARIA

Espainiako Dantza Konpainian sartu zen dantzaririk gazteena izatetik English National Balletarako jauzia eman du Errenteria-Oreretako dantzariak, 22 urterekin. Lorpen handiak egin ditu, bide luzea du aurretik.

AIZPEA AMAS

Hilabete daramazu Londresen. Dagoeneko moldatu al zara hango bizitzara?

Bai eta ez. Beste kultura bat denez, beste hizkuntza bat eta beste hiri bat, pixkanaka egokitzen ari naiz, baina oraindik asko falta zait.

Denbora libre asko ez duzu. Ia egun osoa pasatzen baituzu lanean, entseatzen.

Goizeko hamarretan sartzen naiz eta 18:30ean ateratzen naiz, egun osoa hor sartuta nago.

Nola banatzen dituzue ordu horiek?

10:00etan sartu, eta ordu eta erdiko beroketa egiten dugu. Gero, 11:30etik aurrera, entseguak izaten ditugu egunero, 18:30ak arte. Ordubate dugu bazkaltzeko.

Zein lan ari zarete prestatzen? Manchesterren estreinatuko dugu bi edo hiru aste barru *Giselle* izeneko obra garaikide bat. Pieza klasiko bat da, eta orain koreografia berri bat sortu dute. Bertsiio garaikidea izango da.

Han zaudenetik zerbait estreinatuko duzun lehen aldia izango da?

Bai. Lehen aldiz dantzatuko dut konpainia honekin antzoki batean.

Nola ari zara prestatzen? Nola ikusten duzu zure burua?

Ondo. Hasieran, berria nintzenez, bigarren taldean jarri ninduten, beraiek dagoeneko ezagutzen baitzuten koreografia. Orain, lehenengo taldean nago. Beraz, ondo ari naizen seinale.

Zerk ezberdintzen ditu lehen eta bigarren taldea?

Lehenengo taldeak estreinatu ohi ditu lanak lehenengo egunean eta egun garrantzitsuetan.

Orain, Madrildik Londresera jauzi egin duzu, baina, agian, Madrilera egin zenuen jauzia, maila profesionalean aritzearena, alegia, handiagoa izan zen zuretzat.

17 urterekin joan nintzen Madrilera, eta 19 urterekin sartu nintzen Compañía Nacional de Danza (CND). Egia esan, Madrilgo kontserbatorioan nenbilen orduan, eta urte bat gehiago geratzen zitzaidan bertan. Hala ere, proba egin nuen [CNDn] sartzeko. Zerrendak atera zirenean hango lagun guztiak joan ziren ikustera, baina ni ez nintzen joan. Beste urtebete geratzen zitzaidan kontserbatorioan, eta ez nuen esperantza askorik. Gero, deitu ninduten, 'Aitor, hartu zaituzte!'. Ez nuen sinisten. Hilabete batzuk pasatu ziren konpainian hartu nindutela sinisterako.

Hiru urte egin dituzu Espainia-ko Dantza Konpainian. Nola bizi izan dituzu urte horiek guztiak? Zer ikasteko aukera izan duzu?

Egia esan, asko bizi izan dut. Lehen lantokia izan da, eta lehenengo pauso profesionalak bertan egin ditut. Ikasi dudana izan da dantzan ez duela inporta zenbat jauzi edo itzulipurdi egiten dituzun, baizik eta publikoarentzat dantzatu eta publikoak disfrutatzea dela garrantzitsuena.

22 urterekin Londredera iristea lortu duzu, dantzarentzat hain garrantzitsua den hirira. Nola suertatu zen English National Balleten eskaintza?

Joan den urtean dagoeneko hara joatea pentsatzen ari nintzen, beste pauso bat gehiago eman nahi nuelako. English National Balleten zuzendariarekin harremanetan jarri nintzen, Amsterdamekoarekin, Stuttgartekoarekin... Azkenean, Ricardo Cue dantza sortzailearen bidez, hark asko lagundu zidan [English National Balleteko] zuzendariarekin harremanetan jartzen, kontratua eskaini zidaten. Zuzenean baietz esan nuen.



«Ez du inporta zenbat jauzi egiten dituzun, baizik eta publikoak disfrutatzea»

«Azkar gertatzen ari da dena, baina beti esan dut lan asko egin behar dela»

«Pertsonaiaren atzean dagoen istorioa ezagutzen saiatzen naiz»

Junior soloist bezala ariko zara. Zer da postu hori eta zein aukera ematen du?

Konpainia batean maila ezberdinak daude: dantza multzoa, taldeko dantzak egiten dituzten dantzariak; lehen dantza multzoak; junior soloist; solist; lehen solist eta nagusia. Hirugarren kategoriaren azpitik nago. Taldeko zatiak egin ditzaket, baina baita bakarkako zatiak ere.

Junior soloist bezala aritzeak zer esan nahi du zuretzat?

Bai hona [Londredera] etortzea eta horrelako aukera bat ematea garrantzitsua da, pieza garrantzitsuak dantzatzeko dituzu, bakarlarik bezala, gainera... Lan asko egin behar da.

Zeintzuk izango dira helburuak English National Balleten?

Lan, lan eta lan egin, asko entseatu eta ea zein aukera ematen dizkidaten hemen lan egiteko.

Zeintzuk dira aukera horiek?

Bakarlarik bezala pieza asko dantzatzeko aukera izatea. Hori da dantzari batentzat garrantzitsuena.

22 urte dituzun arren, goiz hasi zara ospea lortzen. Esate baterako, CNDn sartu den dantzari-rik gazteena izan zara. Oraindik, ordea, ibilbide luzea geratzen zaizu aurretik. Nola daramazu hori guztia?

Beti esan dut oinak lurrean ditudala. Bai, azkar gertatzen ari da dena eta beste pertsona bat puztu egin daiteke, baina beti esan dut lan asko egin behar dela eta oraindik asko geratzen dela. Horrela segi behar dudala uste dut, lanean, pixkanaka gauzak lortzen.

Oraindik asko geratzen dela diozu. Noraino heltzea litzateke zure ametsa?

Konpainia on batean egon eta dantzari nagusia izatea. Dagoeneko konpainia on batean banago, eta ea pixkanaka mailak igozen joaten naizen.

Dantzari nagusia izateko lan-keta handia egiteaz gain, garrantzitsua den beste gauza bat lesioak ekiditea da. Halakorik izan al duzu?

Oraindik ez dut lesio garrantzitsurik izan. Zortea izan dut. Izan ditut txikiak, aste batzuk zaintzen egoteko modukoak, baina geldirik egoteko moduko lesiorik ez dut izan. Ea horrela jarraitzeko aukera dudana.


Diziplina handia eskatzen du dantzak, eta horri Madrildik Londreserako toki aldaketa batu behar zaio. Nola zaude?

Maila handiagoga dago, eta ordu gehiago egiten ditugu lanean. Nabaritzen da. Gainera, ez dut oporrik izan. Uztailaren 25ean bukatu nuen Madrilen, eta 27an hasi nintzen Londresen. Gorpuzak nabaritzen du hori guztia, eta kontuz joaten naiz.

Zure helburu nagusia publiko-arengana iristea dela aipatu duzu. Transmititzea nola entrentatzen da?

Pertsonaia bat egin behar badut bera bezalakoa izan behar dut. Haren atzean dagoen istorioa ezagutu eta saiatzen naiz haren tokian jartzen. Alegia, bere buruan egongo banintz, nola pentsatuko nukeen aztertzen, eta gero, dantzaren bidez hori transmititzen.

aamas@hitza.eus



JACOBO MEDRANO

«Madrilera joateko esaten zidaten, eta nik ezetz»

A. AMAS

Erreterria Musikalen hasi zen dena, 8 urte zenituenen. Zergatik aukeratu zenuen dantza?

Nire etxean beti egon da euskal dantza presente. Ama eta osabak dantzatu izan dute. Amak euskal dantzan eman zidan izena. Euskal dantzan urte bat edo bi egin ondoren, ballet klasikoan hasi nintzen, euskal dantzako teknika hobetzeko. Gutxinaka sartzen joan nintzen, euskal dantzako txapelketak egiten. Erreteriatik Donostiara joan nintzen balleta egitera. Gutxinaka gehiago eta gehiago joan nintzen egiten, eta 17 urterekin amari esan nion Madrilerara joan nahi nuela.

Argi zenuen dantzatik bizi nahi zenuela?

Ez. Donostian balleta egiten hasi

nintzenen nire irakasleak esaten zidan Madrilerara joateko, eta nik ezetz, ez nuela honetaz bizi nahi, oso mundu zaila zela... Gero, ordea, udako ikastaro batean parte hartu nuen, eta orduan erabaki nuen Madrilerara joan nahi nuela.

Zer gustatu zitzaizun udako ikastaro horretatik?

Uste dut neskekin dantzatzeko nuen lehenengo aldia izan zela, txiribueltak egiten, igotzen, jaitzen... Ikastaro oso gogorra izan zen, baina konturatu nintzen gehiago ikasi nahi nuela.

Erreterria Musikalen Jon Maya izan zenuen irakasle. Berak sumatu zuen dantzan ibilbidea izango zenuela?

Nik uste dut baietz. Ez nintzen gelditzen, beti lehenengo lerro-

an, ahal nuen guztia ematen... uste dut ikusten zuela dantzarako balio nuela.

Azken aldian izan duzu aukera berarekin egoteko? Zer esan dizu English National Balletera egin duzun jauziaz?

Duela hilabete batzuk Madrilen izan zen Kukai Dantza Max sarietan, eta nik ere parte hartu nuen haiek egin zuten emankizunean.

Kukai Dantzan ibilitakoa zara. Konpainia pixkanaka geroz eta sona handiagoga hartzen ari da. Nola ikusten duzu konpainia eta egiten ari den lana?

Askok gustatzen zait. Euskal dantza garaikidearekin fusionatzen ari dira, eta geroz eta garaikideagoa da. Oso lan ona egiten ari da. Askok gustatzen zait.

Malda xamurtzeko



Zarranbilua
Goiatz Labandibar

Oiartzun

Klik. Berri Txarrak: Iraila. Iraila izango zen, hitzak urtaro batetik bestera bidaltzen gedituen: irailaren laurakin zutabe

hau idazten jartzea ez da erraza. *Izen gabeko txorien antzera zerua ilun, soineko beltz:* denak du depresio kutsu bat. Lanera hasi dena, hasi delako. Hasi ez dena, hasi ez delako. Hizkuntz Eskolan Ingelesean hartu dutelako. Edo ez dutelako. Eta luzatu zerrenda nahi adina... Denak du eta bere aurkia eta bere ifrentzua.

Niretzako, irailaren 1a ere izan da lanera bueltatzea. Internet eta twitterera konektatzea ia hilaitez mundutik deskonektaturik ibili ondoren —ez telebistatik, ez internetik— eta, ei, zin dagizuet: nire bizitzak aurrera jarraitu du mundurik gabe eta

munduak aurrera jarraitu du ni gabe.

Zu hain eder. Baina irailaren leian eguzkia atera da Oiartzunen. *Nik zerotik hasi nahi nuen. Iraila izango zen.* Eta horregatik, agian, saiatu naiz sutan jartzen nauten titularrak baztertzeko. *Munduaren nekea hostoetan:* Hondarribiko Udalak Jaizkibel konpainiaren entseguak debekatu ditu —enfin...—; Joseba Asiron Iruñeko alkatearen kontrako pintadak —*maite izan gedituen gauzek zentzua galdu zutenean, zerua ilun, soineko beltz*—; hirugarrenez Espainiako Estatuko hauteskundeak izateko aukera geroz eta erreagoa

...eta saiatu naiz iraila (*zu hain eder, hain eder; zerua ilun, zorua orbel, zu hain eder...*) xamurtzen duten gauza horiekin betetzen agenda, munduan denik maldarik handiena (eta, egin kasu, Madeiran oporretan pasatu ondoren maldek inpresionatzea ez da hain gauza erraza ere) den iraila hasiera hau xamurtzeko:

Borrokan Kutxa Kulturen; Gurutzeko festetan berriz Txinalkaren *Oooh Paris* ikusteko aukera; Beran; estropadak; jai egun bat datorren astean; Jaizkibel konpainia txalotzea; liburu interesgarri batzuk mesanotxe ganean...

Nola igarri orduan —iragan-hau guztia betiko izango genuela aurretik. Ba hori... iraila dugula aurretik. Gozatzeko.

@ IKUSIENAK

HITZAREN webguneetan, honakoak azken zazpi egunetan bisita gehien jaso dituzten albisteak.

bidasoa.hitza.eus

'Lau txosna baino ez'

Datorren astearen hasieran hasiko dira Hondarribiko jaiak. Bertan, Benta Zaharrean jarri ohi dituzte txosnak. Aurten, aurreko urteetako seien aurrean, lau soilik egongo dira: Olagarro Kultur Elkartearena, Hondarribia Eskubaloiarena, Lokal-180 Kirol Elkartearena eta Psilocybe Elkartearena. Abuztuaren 18ko zozketan sei leku ziren banatze-koak, baina bost eskaera soilik zeuden eginda. Gainera, bost horietako batek, Muarak, uko egin zion txosna jartzeari. Hortaz, aurten jaietan lau txosna izango dira Benta Zaharreko gunean.

'Hondarribia Arraunek txo-txuak behar ditu'

Hondarribia Arraun Elkartek zabalik du arraunlari izan nahi dutenentzat izena emateko aukera. Gazteentzat da batez ere deialdia, arraunean hasi nahi dutenentzat. Herrian txotxu deitzen diete eskarmentu gutxiko marinelei, kasu honetan, arraunean ikasi nahi duten gazteei, mutil nahiz neska. Horregatik, hilaren 12rako deialdia egin diete arraunean hasi edo probatu nahi dutenei. 2004. urtean edo hortik aurrera jaiotako neska-mutil guztiei izena eman dezakete arraun elkartean. Astelehena da irailaren 12a, jaien ondorengo lehen eguna, eta arratsaldeko sei-

tan agertu behar dute arraun elkartean interesdunek.

oarsoaldea.hitza.eus

'Fernando Lizeaga: «Gu anai-arreben duintasuna eta dagozkien eskubideak aldarrikatzen ari gara»'

Presoen eskubideen alde, zehazki gaixorik dauden presoen eskubideen alde gose greba abiatu zuten Etxarri Aranatzeko hainbat lagunek. Horietako bat Fernando Lizeaga *Tato* antxotarra da. Astelehen honetako 12. orrian hari egindako elkarrizketa osoa ikus daiteke, bertan azaltzen du zergatik egiten ari diren baraualdia. Elkarrizketa horren aurrerapen gisara Interneten HITZAK egindako berria azken egunetako albisterik ikusiena izan da Oarsoaldeko atarian.

'Espainiako Itzuliak Pasai Antxo zeharkatuko du ostiralean'

Espainiako Itzuliko 13. etapa Oarsoaldetik pasatuko da gaur, ostirala, arratsaldeko lehen orduan. Bilbon hasiko da, eta Urdazurin bukatuko dute itzuli horretako etaparik luzeena izango dena, 213,4 kilometrokoa guztira. Antxora 15:00ak inguruan iristekoak dira txirrindulariak, eta Errenteria-Orereta eta Oiartzun zeharkatu ondoren, Aritxulegiko gainetik (15:30 inguruan, antolatzailuek emandako ordutegiaren arabera) Nafarroara egingo dute txirrindulariek. Lasterketagatik trafiko aldaketak izango dira egunean zehar Antxon, Errenteria-Oreretan eta Oiartzunen batzere. Hortaz, tokian tokiko udaltzainek adi egoteko eskatu diete herritarrei.

Saiatu naiz iraila xamurtzen duten gauza horiekin betetzen agenda, munduan den maldarik handiena den iraila hasiera hau xamurtzeko

21

HAUTAGAI

Irailaren 25en Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak dira. Gipuzkoan, 11 hautagaitza aurkeztu dira 275 hautagairekin orotara (ordezkoak kontuan hartu gabe), 21 Oarso Bidasokoak. Horietatik guztietatik lehendakari izateko hautagai postuan dagoen bakarra, hau da, zerrendako lehena, Borja Semper irundarra da (PP).

39.996

BISITARI

Hondarribiko eta Irungo turismo bulegoek ia 40.000 bisitari izan dituzte uztailean eta abuztuaren; gehienak Hondarribiko bietara joan ziren, 36.403 guztira. Bidasoa Bizirik-en turismo sailak jakinarazi duenez, iazko marka 2.084 bisitaritan hobetu da aurten bulego horiek. Hotelen okupazioa %90etik gorakoa izan da.

60

ORDU

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak, eskualdera etorri berri direnentzat AISA euskara eskolak prest ditu. Orotara, urritik otsailera, 60 orduz eskolak jasoko dituzte euskararen mundura hurbildu nahi dutenek. Jada zabalik dago ikastaroan izena emateko aukera. Hori egiteko herri bakoitzeako euskara zerbitzura joan behar dute interesdunek.

Irudia Oiartzun



Hildako langilea gogoan

Aurreko asteko ostiralean, abuztuaren 26an, Oiartzungo Ugaldetxoko industriaguneko enpresa batean lanean ari zen langile bat hil egin zen, gidatzen ari zen ibilgailua irauli zelako. 57 urteko gizona zen hildakoa. Lan istripuan hildakoa gogoan izateko, eta horrelakoak errepika ez daitezkeen neurri gehiago har daitezkeen eskatzeko, bi elkarretaratze egin dituzte aste honetan. Lehena CCOO sindikatuak deitutakoa izan zen, asteartean (irudian). Bigarrena herenegun egin zuten, LAB, ELA, Steilas, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuen ekimenez. ERIK GARTZIA

Judas Z Judas Arrieta



Gutunak



Odola alardean

1976ko irailaren 8an San Guardia Zibilak Hondarribiko Alardea odolez ziprindu zuen Josu Zabala hil zuelako. Berri txarra iritsi eta Oreretan kalera ateraginen. Gau horretan bertan olerki gisa idatzi nituen hitz

hauek. Eta handik hilabete batzuetara Imanol abeslariak musika jarri eta bizpahiru jaialditan abestu zuen. Gordea dut, gorriz idatzitako *Denegado* zigilua duen orria.

Badakit poema bezala ez duela asko balio. Baina garai hartako sentimenduen isla denez, argiratzera ausartu naiz. Hona koa da.

Odola alardean

*Hondarribiko alardean
bolbora danbadek*

*dardarazten dute zerua.
Minik egiten ez duen
bolbora kea
itsas ertzean galtzen dena.*

*Alardeko eskopetek
ez dute etsairen beharrik
ezta odol goserik.*

*Akabo jaia!
Entzun da tiro hotsa
zerura begira
lurrean datza hilotza*

*Bizitza eta heriotza.
Jaia eta hileta.*

*Alaitasuna eta tristezia,
ez dute mugarik gure herrian.*

*Zergaresti ordaintzen da
preso daudenak
gure artean nahi ditugula
aldarrikatzea,
ikurrina zabaltzeko
ausardia izatea
Josuk nahi bezala,
guardia zibilen atzaparretatik
lagun bat aska nahi izatea.*

*Grisa eta berdea
zigorra eta herioa,
diziplina itsuaren koloreak*

*Hondarribiako alardea
lutoz jantzi dute.*

–Joxe Iriarte 'Bikila'.

OARSO BIDASOKO HITZAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Posta elektronikoko bidez helbide honetara bidal daitezke, izen abizenak adierazita: oarsobidasoa@hitza.eus. Gehienez 2.500 karakterekoak izan behar dute, eta neurri hori gainditzen badute, **OARSO BIDASOKO HITZAK** eskubidea du horiek mozteko.

Irudiak



Burgostik San Pedrorra, 'San Juan' eraikitzeke

Albaola Itsas Kultur Faktoriako kideak mimoz ari dira *San Juan* baleontzia eraikitzen, garai bateko ontzien eraikuntzarako teknikak errespetatuz, eta hori egiteko beharrezkoak diren lehengaiak erabiliz. Horren erakusle da Gurdi Bidea proiektua. Burgostik San Pedrorra, Albaolak Ondartxon duen egoitzara XVI. mendeko ontziaren erreplika iraganean bezala eraiki ahal izateko bidea eta galipota garraiatzen hasi ziren herenegun, zehazki Quintanar de La Sierra herrian ekozitutako lehengaiak. Idiek eta behi menditarrek tiratutako hiru gurdietan ari dira lehengaiak garraiatzen. Hemezortzi eguneko bidaia da Gurdi Bidea, Burgostik, Arabatik, Nafarroatik eta Gipuzkoatik pasatuko dena. ALBAOLA

Txilibituak ja zorrotuta, jaien esperoan

Hilaren 6tik 11ra herriko festak ospatuko dituzte hondarribiarrek • Ohi bezala, hilaren 6a, 8a eta 10a izango dira aurten ere jendetsuenak, baina gainontzekoetan ere ez da atsedunik izango

–ASIER PEREZ-KARKAMO

Hondarribia

Ia ezer ez da falta Hondarribiko jaietarako. Gaurkoarekin lehen hiru bederatziturrenak ospatu dituzte santutegian eta txilibituak behar bezala zorrotuta daude dagoeneko. Astebururako ekitaldi asko dago iragarrita (ikus *hondarribia.eus*-en), baina indarrak gorde behar dira, astartetik aurrera datorrenari begira. Aurreko eta ondorengo ekitaldi sorta erabat baztertu gabe, hilaren 6an goizez hasi eta 11 gauean bukatzen dira Hondarribiko festak, haurren txupinarekin abiatu eta su artifizialekin amaitu. Sei egun, dozenaka ekitaldi, eta aspertzeko aukerarik ez.

Gazteei eta duela gutxira arte gazte izan direnei galdetuz gero, hiru dira egun indartsuenak. Hilaren sei, kuadrillen afariak egiten direlako; hilaren 8a, alardearen eguna delako; eta hilaren 10a, Arrantzale Eguneko parranda ahazten zaila izaten delako. Gauari kasu eginez gero bai, hiru horiek dira egun luzeenak, eta jendetsuenak, baina beste hiru retan ere jai handia izaten da, bereziki egunez.

Hala, hilaren 7a ekitaldi irmoz beterikoa izaten da jaien hasiera ofizialarena delako; 9an haurrena bihurtzen da egitaraua; eta 11n sekulako giroa biltzen da Zumardiko azokaren inguruan. Aurten, gainera, arraun elkartek hilaren 11n irabaziko du Kontxa, eta 10eko gaualdia luzatzen duenak ordu gutxi izango ditu lotarako. Eskerrak astelehena lan eguna den; atsedeen hartzeko aprobetxatuko du batek baino gehiagok.

HONDARRIBIKO HITZAK jaien jarrera berezia egingo du, eta eguneroko ekitaldi nagusien argazkiak publikatuko ditu. Nolanahi ere, hona hemen hilaren 6tik 11ra galdu ezin diren ekitaldietako batzuk.

Iraila

6 Txikiak hasiko dute festa. Hondarribian haurrak helduei aurreratzen zaizkie eta egun bat lehenago hasten dituzte festak. Hilaren 6an goize-

ko 11:00etan jaurtikiko dute haurren txupina, eta ordu erdi geroago zezen puzgarriek entzierro arriskutsua burutuko dute Santa Maria atetik abiatuta. Astarteko kontzertu nagusia Delorean taldearen eskutik iritsiko da.

7 Berrito hasiko dira jaiak. Jaien hasiera ofiziala hilaren 7an izaten da, 12:00etan, suziaren jaurtiketarekin eta urrezko dominen banaketarekin. Lurdes Zubeldia *Nere sukaldetxoan* liburuaren egileak eta Mercedes Iridoy Josu Zabala hil zutenean alkate zenak jasoko dute oroigarria aurten. Zabala omenaldia 7a aurreratu dute aurten —8an egin izan da beti, egun horretan hil baitzuten—; 17:00etan egingo dute. Arratsean udalbatzak aureskua dantzatuko du Arma Plazan.

8 Alarde Eguna. Festetako egun handia da 8a, alardearen eguna. Herri osoa ate-



rako da kalera, batzuk parte hartzera, besteak tropen ibilbideak ikustera. Beste behin, lau desfile izango dira aurten, bina goizez eta arratsaldez. Zailtasunak zailtasun, Jaizkibel konpainia parekideak hogeigarrenez jardungo du aurten herriko kaleetatik. Gauean ez da girorik faltako, besteak beste, Kresala taldearen erromeriarekin.

9 Helduen ajea, haurren aukera. Alardearen bihar-munean helduek atsedena

behar izaten dute eta haurrak eta gaztetxoak horretaz baliatzen dira. Taka-taka motoen lasterketa, parke erraldoia, sokamuturra, puzzle lehiaketa... Haurren Eguna izaten da hilaren 9a, baina arratsean ezin galdu daitekeen ekitaldia da Kemen Dantza Taldearen erakustaldia Arma Plazan, eta gauez Patxuko Nice, Cobra eta Niña Coyote eta Chico Tornado banden emanaldia Bentan.

10 Arrantzale Eguna, gazteena. 1638ko setioan hildakoen aldeko ospakizunez aparte, parrandarako aitzakia paregabea izaten da Arrantzale Eguna herriko jai nagusietan. Gazteek goizetik hasten dute festa, Bidasoaldeko ETK antolatutako jokoeekin eta kuadrillen bazkariarekin; eguneko lehen ordutik, beraz, giroa bor-bor. Bazkalostean festak ez du etenik izango; Hondarribiko Elektro-Patxaranga, DJ Kanu

eta Ken Zazpi arduratuko dira horretaz. Giro lasaiagoa bilatzen dutenek Arma Plazan aurkituko dute nolabaiteko patxada hori, Gontzal Mendibilekin.

11 Azoka baino askoz gehiago. Baserritarren Eguna-rekin bukatzen dira Hondarribiko festak. Zumardia aldean izaten da festa, goizez eta arratsaldez, baina azken urteetan hilaren 11ko festa eremua zabaldu egin da. Herri kirolak, bertsolariak, pailazoak, pilota, erromeria, kantu-jira eta bestelakoak... Egun handia da jaien azkenena. Su artifizialek itxiko dute pertsiana, hori bai, Doctor Deseo taldearen ondoren.

@ Hondarribiko jaietako egitaraua webgune honetan aurki daiteke: bidasoa.hitza.eus/agenda/

Irudia Hondarribia



Zabalak merezi duen omenaldia

Ikusteko gogorrak, baina ezinbestekoak. Hala dira Josu Zabala gaztearen heriotzaren 40. urteurrenerako Zabala Gogoan lantaldeak prestatu dituen bideoa eta erakusketa. Hondarribiko jaietan hil zuen Guardia Zibilak gazte irundarra eta haren omenez testigantzak jasotzen ibili dira azken hilabeteetan, «belaunaldi berriek gertatutakoa ezagutu dezaten». Atzo eguerdian erakutsi zuten lehen aldiz bideoa Itsas Etxea Auditoriumean eta eraikineko atzeko aretoan erakusketa inauguratu zuten. Jende ugari hurbildu zen bertara, horien artean Zabala senideak (irudian), Hondarribiko eta Irungo alkateak, eta EAJ, Abotsanitz, EH Bildu eta PSE-EEko hautetsiak. ASIER PEREZ-KARKAMO

«Badirudi 80 urte igaro ondoren, egia esateko beldur garela»

Udalak gaurko antolatutako ekitaldiaren deialdiaren edukia kritikatu du Nicolas Guerendiain elkarteak. Irundarrek estatu kolpearengatik alde egin zutela zehaztu du

AIZPEA AMAS Irun

1936an ehunka irundarrek utzi behar izan zuten etxea Francok bultzatutako matxinadaren ondorioz. Etzi, gainera, 80 urte beteko dira Irungo sutea gertatu zela, eta urteurren seinatu horren aurrean, ekitaldiak egingo dituzte egunotan. Gaur, kasu, Irungo Udalak egingo du, 12:00etan, Etorbidearen zubian. Udalak ekitaldi hori «sutearen ondorioz euren etxea utzi behar izan zutenen oroimenez» prestatu du. Haatik, Nicolas Guerendiain elkarteak argi utzi nahi izan du etxea ez zutela horregatik utzi behar izan, baizik eta «lege ezarririk II. Errepublikaren aurka uztailaren 18an izan zen estatu kolpearen ondorioz».

Mariabi Prieto eta Jon Hernandez Nicolas Guerendiain elkarteak ez dute udalaren deialdia seriotzat hartu, eta haren jokabidearen arrazoia ez dutela argi esan dute: «Konfiskatzea, isunak, errepresioa, hilketak... Badakigu zergatik gurutzatu behar izan zuten irundarrek zubia, baina badirudi, oraindik, 80 urte igaro ondoren, egia esateko beldur garela edo beharbada ez zaigula interesatzen».

Are gehiago, «iraingarria» dela iritzi diote udalak inoiz etxera itzuli ezin izan ziren pertsonak aipatzean «hainbat arrazoiengatik» ezin izan zutela egin esatea. «Oso arrazoi garbia zegoen euren etxeetara ezin itzultzeko II.



Nicolas Guerendiaineko kideak, elkartearen aurrean. AIZPEA AMAS

Errepublikaren balio demokrati-koen defentsa».

Irailaren 4ko sutearen aurretik ere, hainbat irundarrek faxisten kontra borrokatu zutela gogorazi du elkarte errepublikanoak, eta 1936ko abuztuaren 11n Pikoketan hildako lagunak aipatu dituzte, Evaristo Larrañaga, Florencio Iratxeta eta Nicolas Guerendiain besteak beste.

Bestalde, udalari gogorazi dio frankismoaren krimenen kontrako Argentinako kereilaren aldeko mozioa onartu zuela 2013ko abenduaren 26an, «hori ez da bakarrik bozkatzea eta sinadura jartzea; horren arabera jokatu behar da».

Gaurko udalaren ekitaldian parte hartuko duela jakinarazi

du elkarte errepublikanoak, eta euren desadostasuna agertzeko baliatuko dutela esan dute.

Etzi, Sare Antifaxistarena

Nicolas Guerendiain elkarteak ere ez du hutsik egingo Sare Antifaxistak etziraiko antolatu duen ekitaldian, ihes egin behar izan zutenen omenez. Santiago zubian izango da, 12:00etatik aurrera. Ekitaldi horretan gogoraziko dute zubia gurutzatu zutenak errefuxiatu bihurtu zirela: «Atzean utzi zuten, egun afganiarrek, eta beste herrialdeetako herritarrek bezala, jazarpena, guda, heriotza eta izua».

Ekitaldi horrekin bat egingo duela jakinarazi du Irungo EH Bilduk.

Hegobusek Hendaia eta Irun lotuko ditu bi linearen bitartez

URKO ETXEBESTE Irun

Hegobus, Lapurdi hegoaldeko autobus publikoen zerbitzua Iruneraino iritsi da. Bi linearen bitartez hiria eta Hendaia lotuko ditu aurrerantzean. 4. linea San Juan plaza inguruko geltokia izango du pausaleku hirian; 5. linea, berriz, Behobiaraino iritsiko da. Lehen aldia da errepi-deko garraibide publiko batek Bidasoa ibaiaren bi aldeak bartzten dituela.

Irundik Hendaia iritsita (hainbat geltoki daude bertan, tartean bat SNCFren ondoan), Hegobusen beste lineekin bat egiteko aukera izango dute erabiltzaileek, eta adibidez, Donibane Lohizunera, Senperera, Sara-ra edo Azkainera joateko aukera izango dute.

Urteko egun guztietan izango da martxan, egunez. Txartelaren prezioa euro batekoa da. Urteko sasoiaren arabera, ordea, maiztasun gehiago edo gutxiago izango dute autobusek (informazioa hegobus.fr webgunean). Horrela, hasteko, Irun (San Juan)-Hendaia lineak 45 minutuko maiztasuna izango du.

‘Zatoz’, euskararen munduan murgiltzeko gonbita

IKERNE ZARATE

Errenteria-Orereta

Oarsoaldeko euskaltegiek ikasturte berrirako matrikulazio kanpaina aurkeztu dute, udal ordezkarien babesarekin, Zatoz lelopean. Errenteriako eta Pasaia-ko udal euskaltegiek, eta Xenpelar AEK (Errenteria-Orereta), Oroitzene AEK (Lezo), Txirrita AEK (Pasaia) eta Intxixu AEK (Oiarzun) euskaltegiek Oarsoaldeko lau udalekin kanpaina bateratua egingo dute. Atzo zabaldu zuten izena emateko kanpaina, eta hilaren 30era arte izango dute aukera izena emateko euskaraz ikasi nahi dutenek.

Oarsoaldeko sei euskaltegi-tan eskaintza zabala izango dute euskararen unibertsoan murgildu nahi dutenek. Hala nabarmendu du Garazi Lopez Etxezarretak, Errenteriako Udaleko

Euskara zinegotziak, «kanpainaren helburua da herritarrek euskaraz ikasteko edo dakitena hobetzeko euskaltegi-tan izena ematea. Askotariko ikastaroak aurkituko dituzte, ikasturtekoak, trinkoak, bereziak».

Ane Amundarain Errenteriako Udal Euskaltegiaren zuzendariak, bere aldetik, izena ematera animatu ditu euskaraz ez dakitenak edota hura hobetu nahi dutenak, «gure familian ohiko hizkuntza izan dadin; gure taberna, jatetxe edo saltokietan bezera euskaraz datozenean artatu ahal izateko».

Kanpaina koloretsua

Euskaltegiaren eta ikastaroen gaineko zalantzak argitzeko, edo euskaltegia bertatik bertara ezagutzeko, hilaren 10ean eta 17an Errenteriako Udal Euskaltegiak

ateak zabalduko dituela gaineratu du Amondarainek.

Koloretsu dator kanpainarako aukeratu duten ikurra, «positiboan egin nahi genuen», azaldu du Oarsoaldeko AEKren zuzendari Borja Arbelaitzek. Orain arte euskaraz ikasi edo hobetzeko aukerari heldu ez dietenei gonbita luzatu die, «aitzakiak aitzaki, orain da unea».

Kanpaina lau haizetara zabalduko dutela gaineratu du Arbelaitzek: «Hilaren 12tik 25era kanpainaren leloa eta irudi koloretsua eramango du hiru gurgiletako txirrinda edo txitak lau herrietatik».

Udalaren diru laguntzak

Izaskun Sagastume Pasaia-ko Udal Euskaltegi-ko zuzendariak, herritarrek Oarsoaldeko sei euskaltegi-tan «asmo, helburu eta



Bizaraingo San Marko gotorlekuan egin zuten aurkezpena. I. ZARATE

beharrei egokitutako eskaintza» aurkituko dutela esan du, «bai maileri eta baita ordutegi- dago-kienez ere».

Gainera, lau udalek euskaraz ikasteko matrikularen kostuaren %80 eta %100aren arteko

diru laguntzak emango dizkiete euskaraz ikastea erabakitzen dutenei.

Aurreko ikasturtean Oarsoaldeko sei euskaltegi-tan aritu zen ikasleen kopuruaren berri ere eman dute, 840 orotara.

«Eskubideak errespetatzea aldarrikatzen ari gara»

FERNANDO LIZEAGA PRESO OHIA

Gose greban da Fernando Lizeaga 'Tato' antxotarra, Joxean Kortadirekin batera. Bi preso ohiek greba mugagabea egiteko asmoa adierazi dute. Larri gaixo dauden presoen askatasuna aldarrikatu dute.

–OLATZ MITXELENA Pasaia Hamabosgarren eguna duzue gaur gose greban [elkarrizketa asteartean egin da; gaur hemeretzigarren eguna dute]. Zer moduz zaudete?

Ahulezia nabarmena da jada, baina orokorrean ongi, kontuan hartuta zein adin dugun-eta... ondo. Hemen ari gara, eusten.

Zein helbururekin hasi duzue gose greba mugagabea?

Helburu nagusia da larri gaixo dauden presoen askatasuna aldarrikatzea. Baina gure hausnarketara harago doa eta oso sinplea da: gaur egun dauzkagun presoak, errefuxiatuak-eta gure borrokaren ondorio direla uste dugu. Iruditzen zaigu, momentu honetan bereizi behar dugula zer den ildo politikoa defendatzea eta zer ondorio horiei aurre egitea. Gure ustez, legeak berakesaten duena bete dadila aldarrikatzea izan behar du orain lehentasuna, hain zuzen, preso gaixoak askatzea.

Gaixo dauden presoek tratamendu egokiak baldintza onetan jaso behar dituzte. Ezin da eskuburdinekin eskaner bat egin, adibidez. Horrelakorik ezin dugu onartu.

Horrez gain, iruditzen zaigu, kristoren beharra dagoela gure presoei, deportatuei-eta bizkarrara eman ez diegula erakusteko. Dagozkien eskubideak guk borrokatu behar ditugu, kalean. Ezin dugu onartu preso gaixo bat gure muturren aurrean jipoitzea eta ez erantzutea. Mahai gainean jarri nahi dugu herri hau mugitzeko dagoen beharra, herri

gisa erantzuteko beharra. Eta gero, gerokoak. Bakoitzak defendatuko du bere ildo politikoa eta abar. Momentu honetan hori ez da eztabaida. Barrukoek gure berotasuna sentitu behar dute, ez garela ahaztu, eta prest gaudela, behintzat eta gutxienez, dagozkien eskubideak bermatzeko.

Aitzol Gogorzaren eta Ibon Iparragirren kasuak nabarmendu dituzue. Gogorza bera gose greban egon da abuztuan. Zer irakurketa egiten duzue Gogorzaren egoeraz?

Benetan lotsagarria iruditzen zaigu berak pausu hori eman behar izatea. Kontuan hartuta zein egoeran dagoen, herriak askoz ere lehenago mugitu behar zuen bere alde, eta amorrua dugu, iniziatiba hau aspalditik ari garela-

“

«Mahai gainean jarri nahi dugu herri hau mugitzeko dagoen beharra»

«Gai ez bagara denok batuta borroka egiteko herri hau hilda dago»

ko prestatzen, eta azkenean bera hasi delako gu baino lehenago gose greban. Anai-arreba bezala sentitzen baditugu, ezin dugu halakorik onartu. Bermatu behar dugu denek izatea bizi baldintza duinak. Pentsatzen dugu merezi dutela. Gai ez bagara de-



IÑIGO RUIZ / ARGAZKI PRESS

nok batuta borroka egiteko herri hau hilda dago.

Kartzeletan ere hainbat preso ari dira greban. Zentzu horretan zein da egoera oraintxe?

Egia esan, zoritxarrez, hedabideetan-eta ez da ezer islatzen, eta informazioa tantaka heltzen zaigu. Badakigu Huelvan txandaka ari direla huelga egiten, preso bakoitzak astebete egiten duela, eta horrek poza eta indarra eman digu, eta hortik ere elikatu gara.

Aitzolen [Gogorza] kasuan bezala, dei bat da, jendeari mobiliza dadila eskatzeko. Valentzian ere isolamenduan daude, beren borondatez txapatuta, sakabana-keta salatzen, eta bisitarik gabe.

Hori da dakiguna, nahiz eta informazio gehiegi ez dagoen, zentsuratuta edo... Ez dakit nola esan. Badakigu kalean ere hainbat iniziatiba lantzen ari direla.

Besteak beste, manifestazioa deitu du Amnistiaren Aldeko

eta Errepresioaren Kontrako Mugimenduak biharko Etxarrin. [Debekatu egin dute].

Helburua da ulertaraztea denak batu behar garela presoan alde.

“

«Helburua da ulertaraztea denok batu behar garela presoan alde»

«Legeak agintzen duena betetzen ez badute, kalean guk estutu behar dugu»

Presoek sentitu behar dute atzean herri bat dutela beren eskubideak defendatzeko. Batzuek behintzat hori dugula lehentasuna, beren bizimodu duina bermatzea, eta gure berotasuna eta beraiekin gaudela erakustea.

Berritot, legeak agintzen

duena betetzen ez badute, kalean guk estutu behar dugu nolabait. Iruditzen zaigu guk borrokatu behar dugula eskubide horien alde. Hori da lehentasuna. Horrekin ez dugu esan nahi besterik ez denik egin behar, baina iruditzen zaigu lehentasuna horixe dela orain. Hori bermatzen denean gustura asko egongo gara egon behar den tokian.

Etxarriko ikastola zaharrean zaudete eta han elkartasun handia eta bisita asko jasotzen ari zaretela esan duzue azken egunotan.

Erantzuna oso ona izaten ari da. Jende asko etortzen da, zalantza askorekin asko eta asko, erabat nahastuta. Askok hitz egiten ari gara jendearekin, eta espero dugu ulertzea gu ez gaudela hemen sigla batzuk aldarrikatzen, ez eta ildo politikoa bat ere. Gure anai-arreben duintasuna eta dagozkien eskubideak betetzea aldarrikatzen ari gara.

omixelena@hitza.eus

Sailkatzea lortu dute lau traineruk, orain banderen bila doaz

Gizonetan Hondarribia eta San Juan sartu dira Kontxan; San Pedro, ez • Emakumeetan, Hibaika eta San Juan, estuasunik gabe sartu dira Kontxan

–URKO ETXEBESTE

Iaz baino traineru bat gutxiago izango du Oarso Bidasok Kontxako Banderan. Gizonetan San Pedrok huts egin zuen, bederatzigarren izan zen sailkapen estropadan, kanpoan gelditu zen. Hondarribiak eta San Juanek lasai asko egin zuten aurrera gizonetan, emakumeetan Hibaikak eta San Juanek egin moduan. Bat gutxiago, baina bi banderak irabazteko aukera asko.

Emakumeetan dena gidoiaren barruan. Ustekabekorik ez. Hibaikak eta San Juanek lasaitasun handiz lortu zuten sailkapena. Ziabogan jada pronostikoez esaten zutena hitzez hitz bete zuten errenteriarrek eta sanjuandarrek, hurrenkera horretan lehenak izan zirelako. Zalan-zari izpirik ez zioten utzi aurtengo sasoiko bandera guztiak irabazi dituzten bi traineruek lehen paladatik, eta ziabogatik bueltan berretsi egin zuten *Madalen* ontzikoek eta batelerek Kontxa irabazteko faborito bagusi direla.

Atzoko sailkapen nagusian, ohorezko lehen bi postuetan Hibaika eta San Juan, bien arteko bi segundoren aldearekin. Ondoren, arrosetatik ia lau trainerura, Orio. Eta horien atzetik Cabo, Getaria-Zarautz, Hernani eta Deustu, Donostia-Arraunekin batera igandeko zortzikotea osatzeko.

Hondarribia zortzigarren izan zen sailkapenean; antza, inork nahi ez duen postua zen hori, sailkapena ia laztantzen duen postua baita. Baina ikusita aurreko taldeak, Deustuk, 22 segundo ateraz zizkiola Hondarri-

Sailkapena

EMAKUMEAK

1. Hibaika	11:22
2. San Juan	11:24
3. Orio	11:35
4. Cabo	11:38
5. Zarautz-Getaria	11:46
6. Hernani	11:59
7. Deustu	12:05
8. Hondarribia	12:27
9. A Cabana Ferrol	12:50
10. Colindres	13:15

GIZONAK

1. Hondarribia	19:54
2. Orio	20:04
3. Urdaibai	20:05
4. San Juan	20:09
5. Zierbena	20:14
6. Kaiku	20:18
7. Tiran	20:19
8. Astillero	20:24
9. San Pedro	20:30
21. Oiartzun	21:34
22. Hibaika	21:52
24. Castropol	22:07

biari, konformatzeko modukoa da zortzigarren leku hori. Ikasten jarraitzeko aukera paregabea atzokoa berdeentzat.

Igandeko emakumeen estropada, Kontxako lehen jardunaldikoa 11:00etan hasiko da. Bi bizilagunen arteko lehia historikorenean beste pasarte bat bizi ahal izango dute Donostiaraino hurbiltzen diren zaleek.

San Pedroren hutsunea

Gizonen estropadan Hondarribiaren indar erakustaldia. San Miguel Ligako azken estropadek utzitako zapora gazia kendu zuten atzo berdeek, eta marka oso onarekin sartu ziren Kontxan,



Hibaika izan zen emakumeen sailkapen estropadan onena, ez zuten arazorik izan. ASIER PEREZ-KARKAMO



Batelerek ere ez zuten estuasunik pasatu Kontxan sartzeko. Hirugarren banderaren bila doaz. A. P-K.



San Pedro, atzoko estropada bukatuta. Bazekiten egindako denbora ez zela onegia izan. ASIER PEREZ-KARKAMO

ziabogatik nagusitasuna azalduz, lasai, arazorik gabe.

San Juanek ez zuen iazko estuasunik izan Kontxan egoteko, ziabogan laugarren eta bukaeran berdin. Horrek ez du esan nahi atzo dena eman ez zutenik, baina aurrera egin zuten arrosak, zaleei ezustekorik eman gabe.

Pena San Pedro. San Migueleko aurreko estropadan goian ibili ziren, moreek bazuten esperantza, ez hutsala, Kontxan sartzeko. Baina ezin. Sailkatzetik 11 segundora gelditu ziren *Libia* ontzikoak, nabarmen kanpoan, eta sasoia, horrenbestez, bukatutzat eman dezakete.

Oiartzun eta Hibaika gozatze-

ra ateraz ziren atzo Donostiako badiara. Biek ala biek bazekiten oso zail zutela sailkapenetik hurbil egotea, eta ikasteko, helduago izateko, eta sasoi oso on bati bukaera emateko baliatu zuten arratsaldea.

Gizonen estropada 12:00etan hasiko da igandean. Txinpartak aterako dira Kontxan.

Zure ekitaldia
agertzea
nahi baduzu:Bidali mezua
oarsobidasoa@hitza.eus
helbidera.Egunez
egun

GAUR

Antzerkia

Erretereria-Orereta. Markeliñe konpainiak, *Crusoe* antzezlanaren taularatuko du, 17:30ean, Zuzmardian. Doan da, eta familia osoari begirakoa da. Bere uhar-tean bakarrik dagoen naufrago baten istorioa kontatzen du lanak, bizitzari buruzko metafora bat egiteko.

Ikus-entzunezkoak

Irun. Zineforuma, 19:30ean, Katea-Landetxa auzo elkartearen egoitzan.

BIHAR

Bestelakoak

Irun. Larunbatetako azoka izango da, 08:00etan, Urdanibia plazan.

Oiartzun. Oarso Bidasoko erretiratuen lehiaketa gastronomikoa izango da goizean zehar. Orlaskoa saltsan prestatuko dute eta ondoren, bazkaria Elizalde ikastetxean.

ETZI

Irteerak

Irun. Iparrorratz bidezko orientazio ikastaroa izango da Gipuzkoako Orientazio Taldearen eskutik. Aldez aurretik eman behar da izena 010 (Irundik), 943 50 51 52 edo 943 49 02 19 telefono

Irudia Erretereria-Orereta



Emakume deportatuak, Xenpelarren

XX. mendean giza eskubideen urraketa bortitza jasan zuten emakumeei hitza eman dien *Resistentes y deportadas* erakusketa hartu du Xenpelar Etxeak. Kontzentrazio eremuetan eguneroko bizitza nolakoa zen bildu dute. Simone Chrisostomen, bizirik dagoen euskal deportatu bakarraren testigantzarekin zabaldu zuten erakusketa atzo. 19 urterekin Alemaniako Ravensbrück kontzentrazio eremura eramantzen eta 26 hilabete eman zituen bertan. Kontzentrazio eremu horretan 92.000 emakume hil zituzten. Hilaren 14ra arte izango da zabalik erakusketa, astelehenean larunbatera 17:00etatik 20:00etara. Hilaren 8an, berriz, *La ola* filma emango dute Reina aretoan, 19:00etan. I.Z.

zenbakietara deituz. 10:00etan hasiko da, Lapurriturriko informazio gunean.

Bestelakoak

Irun. Kromo bildumak egiten dituztenentzako truke saioa izango da, 12:00etan, Luis Maria non.

ASTELEHENA

Bestelakoak

Erretereria-Orereta. Duintasuna elkarteak antolatuta, 11:00etan eta Herriko Plazan, hileko lehen asteleheneko elkarretaratzea eta ondoren manifestazioa.

ASTEAZKENA

Hitzaldiak

Erretereria-Orereta. Kulturarteko hezkuntza ikastetxean formazio saioa emango du Xavier Besalú i Costa kultura arteko hezkuntzan adituak, 16:00etan, Reina aretoan. Irakasleei begira-

koa izango da saioa. Egundau den erronkak, eta kultura arteko ikasketa inklusiborako bidean urratsak egiteko gakoak emango ditu. Ostegunean, berriz, saio berbera emango du baina guraso eta gurasoen elkarre-tako kideei begirakoa, 10:30ean, Reina aretoan.

Egin HITZAren harpidedun

...eta gozatu
harpidedun izatearen abantailez
egonaldiak, produktu sortak, materiala...



bertako egunkaria

902-82 02 01

[Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00]

oarsobidasoa.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus / oarsobidasoa.hitza.eus
Santa Klara 22, behea • 20100 Erretereria-Orereta

• 943 34 03 30 •

Hiru musika museo izango dira Herri Musikaren Jardunaldien protagonista

Gaur hasi eta igandera bitartean izango dira herri musikari buruzko jardunaldiak • Kontzertuak, kale ikuskizunak, tailerrak eta hitzaldiak uztartu dituzte egitarauan



Brigada Victor Jara laukote moduan ariko da Herri Musikaren Jardunaldietan. HITZA

ERIK GARTZIA Oiertzun
Gaur hasi eta etzira arte, Soinue-nea Fundazioak antolatutako Herri Musikaren Jardunaldiak ospatuko dira Oiertzunen hamabosgarren aldiz. Herri musika oinarri duten hiru museo izango dira protagonistak, *Hiru museo, hiru musikari, hiru historia, hiru proiektu, hiru bizitza* lelopean. Horrela, Oiertzungo Herri Musikaren Txokoaz gain, Urueña (Valladolid, Gaztela Leon) Centro Etnografico Joaquin Diaz eta Sendimeko (Portugal) Sons da Terra izango dira bertan.

Bihar arratsaldean danbolin jotzailei buruzko tailerra eman- go dute udaletxean, 17:00etan. Angelo Arribas portugaldarra, Manuel Perez gaztelarra eta Aitor Arozena oiertzuarra izan- go dira tailerra emateko ardura- dunak. Tailerra bukatuta, 20:00etan, ikastaroa emango duten hiru musikariek kontzer- tua eskainiko dute toki berean, *Europar danbolinteroan hiru eredu* izenburupean.

Etzi, berriz, Urueña, Sendim eta Oiertzungo museo- en proiektuei buruz ariko Diaz, Mario Co-

rreria portugaldarra eta Juan Mari Beltran. 10:00etan hasiko da hitzaldia, udaletxeko areto nagusian. 16:00etan, berriz, ma- hai-ingurua egingo dute Manuel Lekuona Bibliotekan.

Arratserako utziko dituzte biharko musika emanaldiak. 19:00etatik aurrera kale bueltan ibiliko dira hainbat musikari he- rriko kaskotik zehar. Eta 22:00etatik aurrera, berriz, Done Eztebe plazan, *Hots kaleidosko- pioa* izenburupean kontzertua emango dute Manuel Perezek,

Juan Mari Beltran hirukoteak eta Brigada Victor Jara Portugal- go laukoteak. Euria eginez gero, Elorosor da emanaldia.

Etzi bukatuko dira aurtengo Herri Musikaren Jardunaldiak. 11:00etatik aurrera musikariak kalez kale ibiliko dira Elizaldetik zehar.

Horrez gain, etzi bitartean, hiru museoek argitaratutako materialarekin erakusketa ikus- teko aukera izango da udaletxe- an,

egartzia@hitza.eus

Zinema

Errenteria-Orereta

NIESSEN ZINEMAK

www.centrocomercialniesen.com - 943-34 52 91

Ben-Hur	17:00		19:45	22:30
Kubo y las dos cuerdas...	16:00	18:10		
Peter y el dragón			20:20	
Los visitantes la lian	16:00	18:15	20:30	22:45
Mascotas	16:00	18:00		
Nunca apagues la luz				22:35
Café Society			20:10	22:15
Cuerpo de élite	16:00	18:05	20:20	22:40
No respites	16:00	18:05	20:20	22:40


Irun

OCINE MENDIBIL

www.ocine.es - 943-00 12 00 - Ikuslearen eguna: astelehena

Café Society	16:15	20:20		
Cuerpo de élite	16:00	18:00	20:00	22:00**
Kubo y las dos cuerdas...	12:15**	16:10		
Mascotas	12:15**	16:30	18:30	20:30
Nunca apagues la luz	22:15			
Peter y el dragón	22:15			
Star Trek: Más allá	22:30			
Ben-Hur	12:00**	16:00	18:30	20:00
Los visitantes la lian	18:15	20:30	22:45	
No respites	12:15**	16:10	18:00	21:00
Bridget Jones' Baby	16:00		18:15	20:30

* Bakarrik larunbatean ** Bakarrik igandean



Kubo y las dos cuerdas mágicas animaziozko filmea. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KOMERTZIALA Erreferentzia: HARP-2016

Oarso Bidasoko Hitzak komertziala behar du harpidetza kanpainarako

Eskaintzen da:

- Aldi baterako laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa gehi komisioa.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea.
- Oarso Bidasoan edo inguruan bizitzea eta ongi ezagutzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.

Interesa duenak bidali curriculuma gizabaliabideak@berriataldea.net helbide elektronikora HARP-2016 erreferentzia zehaztuz, irailaren 5a baino lehen.

—OLATZ MITXELENA Irun

Auzoa hobetzeko lan egiten duten pertsoneri aitortza egitea. Horixe da Irungo Alde Zaharra-San Juan auzo elkarteak urtero banatzen duen Txapelaundi sariaren helburua. Sariaren hirugarren ekitaldian Pombar zapata dendako Inma Ariztia saritu dute, «auzoko bizilagunekin harreman estua izateagatik, eta auzo laguntzeagatik ekimenetan parte hartuz eta inplikatur».

1939. urtetik dago zabalik Irungo Pombar zapata denda, alde zaharreko Karrika Nagusiko 9. zenbakian. Luis Pombarrek zabaldu zuen negozioa, Inma Ariztiaren aitaginarrak, hasieran zapatagile bezala.

Luis Pombarrek hiru seme zituen, eta haiek hartu zioten lekuko ondoren atondu zuen zapata denda. Hiru semeak zendu dira jada, eta haietatik gazteena, Jesus izeneko hil zenez geroztik, haren alarguna Inma Ariztia eta bien seme Oscar Pombarrek gobernatzen dute zapata denda-

1939. urteaz geroztik dago zabalik Irungo alde zaharrean Pombar zapata denda

ren egunerokoa. Hirugarren belaunaldia dago, beraz, negozioaren gidaritzan.

Omenaldia eta bazkaria

Sorpresaz harrapatu du III. Txapelaundi saria Inma Ariztiak: «Egundaino ez nuen pentsatu nik emango zidatela deus ere», aitortu du. Harriduraz, baina pozik, «oso pozik» hartu du saria. «Nitaz oroitzeak ilusio handia eman dit».

Ariztia ez da bizi auzoan, baina aspalditik bertan lan egiten duenez, auzotar guztiekin ondo moldatzen dela dio. «Lagundu behar badut, laguntzen dut», adierazi du.

Bazkari bat antolatu zuen auzo elkarteak Inma Ariztiari III. Txapelaundi saria emateko, eta mahaiaren bueltan, «oso hunkituta» jaso zuen bizilagunen aitortza.

Bilakaeraren lekuko

Bere zapata dendaren mostradoretik auzoaren bilakaera gertutik ikusteko aukera izan du Ariztiak, eta nostalgia puntu batez oroitzen du iragana: «Kale honetan bakarrik geratu naitz», nabarmendu du iraganean Karrika Nagusian zeuden komertzio txiki guztiak gogoan. «Gaur egun ez da dendarik, denak barrak dira», kontatu du. «Bazen

mertzeria bat, optika, janari denda, okindegia, arrandegi bat ere bazen...».

Horiek guztiak itxita, aldaketa auzoan erabatekoa izan dela dio: «Gu, lehen, hemen, hiru familia bizi ginen, eta orain familia bat eta doi-doi». Zapata denda hiru anaiak zeuden garaiak ditu gogoan Ariztiak.

Merkataritza gunen handien


ugaritzearekin lotu du Ariztiak komertzio txikiaren gainbehera: «Lehen jendea etortzen zen denda txikietara erostera, baina orain, superfizie handi horiek badirenez, ba...».

Berezitasunei erreparatur

Aitzitik, eta zailtasunekin bada ere, Pombarrek topatu dute bizirauteko zirrikitua. «Espezia-

litatea dugu zapatila zabaletan eta zango berezietan, eta horrela eusten diogu».

Alpargatak, abarkak... baina etxeko zapatilak saltzen dituzte gehien Pombar zapata denda, eta beste toki askotan topatzerik ez dauden zenbaki handiak izaten dituzte eskuragarri. Horrek ere bezero asko erakartzen dituela kontatu du Ariztiak: «Badi-



Irungo Alde Zaharra-San Juan elkarteak urtero banatzen duen Txapelaundi Saria Pombar zapata dendako Inma Ariztiarentzako izan da aurten; auzoaren alde lan egiten dutenei aitortza egiten die auzo elkartearen sariak.

Pombar tarrak, auzoari zapatilak jazten



ra aunitz tokitan ez dituztenak 47, 48, 49 zenbakiak... horiek ez dituzte inon ere. Iruñeatik eta, etortzen da jendea, badakitelako nik ditudala zenbaki handiak. Emakumeenak 42 zenbakira arte baditut, eta gizonenak 50 zenbakia ere badut», nabarmendu du.

Zenbaki handietan, orain gutxi arte, beti koadrodun klasikoak izaten ziren etxeko zapatilak, baina Ariztiak modernoagoak ere saltzen ditu: «Orain badira politak, eta ikusten dituztenean denek esaten didate ez dituztela egundaino horrelako zapatila politak ibili», dio harro.

Elxetik (Alacant, Herrialde Katalanak) ekartzen ditu zenbaki handiak, eta gainontzekoak Errioxatik. «Ez dut bat ere kanpoko. Zenbaki handiak Elxekoak dira, eta gainontzekoak Erri-

Garai batean hiru familia bizi ziren zapata dendak ematen zuenetik

xatik ekartzen ditut, baina bestela kanpotik ez dut bat ere ekartzen. Nik zapatila txinatarrik ez dut sekula ekarri, ezta ekarriko ere», dio konbentzimendu osoz.

Etorkizuna kolokan

Semearekin egiten du lan Inma Ariztiak zapata denda, baina ez du argi bere semeak etorkizunean negozioari eusteko aukera izango duen, batez ere, zapata dendaren lokala ez delako berriena: «Ez dakigu, hau ez delako gurea. Lokala udalarena da, eta udalak saldu nahi du», kontatu du.

Besteak beste, horregatik Ariztiak ez du etorkizunean gehiegi pentsatu nahi: «Gaurko egunean lokalak kristoren dirutza balio dute. Nik ez dut pentsatu nahi. Nirea bukatzen badut, gero, ikusiko dugu, semeak nahi baldin badu nik lagunduko diot, baina ez dago jakiterik».

Bien bitartean, egunean egunekoari erantzuten jarraituko dute Pombar zapata denda Ariztiak eta bere seme Oscar Pombarrek, betiko legez, auzoko eta kanpoko bezeroak gertutasunez hartuz, arretaz eta mimoz: «Bezero denei eskerrak eman nahi dizkiet dendara etortzeagatik, hori ere eskertzekoa delako».

omixelena@hitza.eus